

**SPRILUR, SA-K LURZORUA EROSTEKO GAUZATUTAKO ERAGIKETEN  
FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2006-  
2009**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, Sprilur, SAk 2006ko urtarrilaren 1etik 2009ko abenduaren 31 bitartean lurzorua erosteko gauzatutako eragiketen fiskalizazio txostena mamitu du, eragiketa horiek 67 milioi euroren zenbatekoa egin zuten. Txostena aho batez onetsi dute Osoko kideek eta horietako hiruk baterako boto partikularra egin dute.

Lanaren mamia, nagusiki aldi horretan zehar gauzatu diren lurzoru erosketen zerrenda eta horien kostuaren xehapena eskuratzea izan da; horretarako, kontularitzan erregistratutako zenbatekoak aztertu dira, garatu beharreko poligonoak hautatzeko eta dagozkion lursailak erosteko baliatutako prozeduren analisia egin da; erosketak eta SPRILUR-ek ahalordetutako pertsona ezargarria zaion legeriari egokitzen zaizkiola eta eskritura publikoan jaso direla egiaztatu da eta azkenik, ordaindu diren kalte-ordainak ezargarria den legeriari egokitu zaizkiola baitetsi da.

Azterlana gauzatu ondoren, HKEEk hainbat ondorio orokor eskuratu ditu; horiek guztiak ondotik zehaztu ditugu eta sakonago jaso ditugu txostenean bertan.

-SPRILUR-ek ez du lurrak erosteko jarraitu beharreko prozedura jakin bat zehaztu eta honenbestez, ez da agiri bidez euskarritzen merkatu berrien ikerketa fasea, harik eta bideragarritasun azterketa gauzatzen den aukerara arte; berebat, ez daude egoki dokumentatuak erosketen onespenerari buruzko erabakiak, ez eta prezioen finkatzea eta gainerako baldintza finantzarioak ere eta epe luzeko proiektuetan diruaren balioa aintzat hartzea bideratuko duen sistematikarik ere ez da ezarri.

-Halaber, ez du lurzorua erosteko ez planik, ez erosketa programarik zehaztu ere eta esparru honetan zehaztutakoa Aurrekontuetan aipatutako gauzatu beharreko helburu orokorretara mugatu da.

-Erosketa bakoitzaren dokumentazioa bideragarritasun azterlanarekin abiarazten da eta horrek poligono jakin baten sustapenari ekiteko analisia barne hartzen du; ordea, ez ditu kokapen hau eta ez besteren bat hautatzeko izan diren arrazoiak ematen.

-Ez da erasota uzten horretarako eskumena duen administrazioak proiektua alde z aurretik ezagutu edo onartzen duenik.

Garatu beharreko egitasmoa aztertzen duen bideragarritasun azterlanak ez du zehazki lursailaren tasazioa barne hartzen, baizik eta, gehienez ere, lurzoruaren hondar balioa behin salmenta prezioa aurreikusi dela, SPRILUR-ek arrazoizko irizitakoa eta urbanizazio eta eraikitze kostuak balioetsita.

-Aztertutako aldi an egindako erosketetarik bakar bat ere ez du alde z aurretik Administrazio-kontseiluak onets.

HKEEK amaitzen du esanez jarduera esparruak eta erosi beharreko lursailak hautatzeko erabilitako prozeduraren eta ordaindutako prezioak zehazteko baliatutako prozeduraren gaineko informazio ezak ez duela bermatzen SPRILUR-ek 2006-2009 aldi an lursailen erosketan eraginkortasun, objektibotasun eta ekonomiaren printzipioak bete dituenik.

Berebat, txostenak aztergai izan diren poligono eta erosketei ezargarriak zaizkien bestelako ondorio zehatzagoak ere besarkatzen ditu, txostenaren atal argigarrietan banaka aztertu direnak.